

Yara Larrea Iturrioz

B maila • **Aipamena**



Yara Larrea naiz, 15 urteko legorretarra. Ordiziako oianguren institutuan ikasten dut, dbh 4n. Neure burua 3 hitzetan deskribatu beharko banu festazale, eskuzabal eta burugogor bezala deskribatuko nuke, eta etorkizunaren inguruan zalantzak izan arren ikus entzunezko komunikazioa ikasi nahi dudala argi daukat, nahiz eta artea ere asko gustatu. Nire zaletasunen artean saskibaloia, irakurtzea, musika entzutea, eta mendira joatea daude. Lagunekin arratxaldeak pasatzea eta planak egitea izugarri gustatzen zait, haiekin bizitzan ditudan gauza txarrak ahazten zaizkit. Ahizpa txiki eta bikia ere baditut, batzuetan txakurra eta katua izan arren asko maite ditudala badakite. Oso arro nago neure buruaz, horrelako lehiaketa batean aipamen saria lortu izanaz zehazki. Neure aburuz horrelako lehiaketek euskal literatura izugarri bultzatzen dute eta.

URRUTIKO INTXAURRAK

Udazkeneko gau ilun eta haizetsu batean, buruko lurrikarengandik itzuri nenbilen. Hostoen kras-kras hotsa entzuten nuen pauso bizkor bakoitzean. Neure buruak behin eta berriz errepikatzen zidan azken hotsa jada eman zuela, arnasestuka nenbilela hau guztia, oinazeen astinaldi hauek gure egiten genituela eta gainerakoentzat, urruneko eltzea zela limurtu nahi nion neure buruari. Esaera zaharrak dioen moduan: “Urruneko eltzea urrez, gerturatu orduko lurrez” beti besteen bizitza samurragoa dela gogoeta egiten nuen. Gau hartan ez zen otsoen ulurik, ezta txorien kanturik ere; baserriko txakurren zaunkek ere mingaina lotu zuten. Tupustean, sakelekoaren bibrazioa sentitu nuen, hura poltsikotik atera eta ama zen, non nengoen galdezka, jada arduratzen hasia zen. Ohartu gabe sakelekoa lurrera jaurti eta negar batean jarraitu nuen zainak eten arte.

Kosta egiten zitzaidan amama zendu zela onartzen zuen listua irenstea; izan ere, nigatik egin zuen guztiagatik zorretan nengoen. Heriotza hori gainditu nahian nenbilen, baina ahateari igeri egiten irakastea bezala izan zen; zaila, nekeza, sasi-ametsa. Esaterako, minbiziak gazte erantsi zizkion eskuak, urteek bere zama hartu aurretik astundu zen zorigaitza eta uste baino lehenago eraman zuen geure bihotzetan erabat gordeta dugun emakume indartsua. Munduan gehiago behar diren emakume horietako bat zen nire amama, denok miresten duguna eta alboan behar ditugunetako bat. Oraindik bihotzean neure gogamenaren ganbaran eztenkada mingotsa sentitzen dut bere ahots gozoaz oroitzen saiatzen naizenean eta haren melodiaren hutsuneagatik, belarriko argizaria goritzen ez denean. Amak dagoeneko joan zela esan zigun liparrean familiako kide guztion barnean hutsune handi bat sortu zen eta nire baitan argi bat itzali zen, mundua zuri-beltzean ikustea egin, ingurua lanbrotu eta bizitzari buru egiten uzten ez zidan itzala. Ekliptse madarikatua, antza izarra piztu bai, baina gaueko ilargiak ez zidan keinurik egiten, gerizpea besterik ez.

Baina horrelakoa da minbizia, gaixotasun maltzurra, berekoa, ausazkoa, gardenaa, ikusezina, horrelakoa da minbizia, mina eta bizia, trumoa eta tximista, argia eta ilunaren txirrista, lasterra eta boteretsua, astuna eta pisutsua, baina batez ere neketsua. Gutxien merezi dutenen eta bizitzari gehien eskaintzen dienen bizitzak lapurtzea gustatzen zaio, ipuinaren protagonista ebastea du gogokoen, elkarrizketen gidoiak desagertzea du desira, irudimena hankaz gora jarri eta paperek tolesten duten oinazea zimurretan itsastea du jomuga. Kontakizunaren lema dutenek ordea, ibilbide luze horretan ezpainak izurtzeko indarra egiten dute, begirada itzulipurdika izan beharrean, zorroztu eta ingurukoen maitasuna besarkatzen dute. Gogoan dut amama buztana bezain argala geratzen hasi zenean, sugandilak jaten duen taloa zirudien, mehea eta zurbila eta ilea amen batean erortzen zitzaion. Orduan hasi zen ondoeza hartaz jabetzen, bere sarean erortzen.

Gauzak inoren laguntzarik gabe egiteko zailtasunak izaten zituen azkenaldian eta gertuko gertakizunak bizi zen, hurkoenen bostekoetan, familiakoen besoetan. Xelebrea egin zitzaidan buruan zapiak ipinita ikusi nion lehen aldian pirata bat naiz laztana- esaten zion ahapeka nire ahizpa txikiari, oraindik gertatzen zenaren jabe ez zelako. Emakume zuhurra zen, senarra lanean zegoen bitartean sei biloba berak bakarrik zaintzeko gai izan zen eta; bere seme alabei jagoteko prest egoten zen eskuarki. Gurasoek beti aipatzen digute ilargiaren magalean egoten zela gu zaintzerakoan, izarrak gure izara pean sartu eta amets eginaraztean. Haien arabera, orduak ematen zituen guri istorioak kontatzen, literaturaren txoko ezkutuenak erakutsi ohi zizkigun. Hiru txerrixoen ipuina genuen gustuko, oraindik gogoan dut otsoa imitatzerakoan egiten zuen ahotsak baztangak baino beldur gehiago ematen zigula eta artean, maindire beroen barruan ezkututzen ginela, nola edo hala hark babestu egingo gintuelakoan.

Konpainiaren altzoan laprast egin duena aitita izan da, oraindik ere min ematen dit haren aurpegiaren adierazpena oroitzen dudanean. Haren malkoak begi urdin sakon horietatik erortzean, eta upela bete negar egiten ari zelarik, negar-arpuluak amamak berak jositako zapiarekin lehertu zituenean, barnea lehertu zitzaidan; ezandarik luzeena izan zen, leherketarik bortitza. Beti izan da gizon alaia, edozein hizpide izanda barrez galtzak busti arte isiltzen ez zen horietako bat. Amamak zioenez, oso festazalea zen, argi dago nondik irten naizen horren jaizale, familian karakola eta barea garela sarritan esaten zuten. Urte hauetan guztietan zehar aititek argi utzi digu amama haren gibeletik barea bezala arrastoa utziz lerdea dariola ibiltzen zela, edonork maite zezakeena baino gehiago maite zuen; hari so egitean bihotzaren taupadek izandako bizkortasuna biderkatuta baino gehiago; haien gorputzen baturak sorraraziko orgasmoaren gozamenaren baino areago; bata bestearikiko zuen miresmenaren adrenalinen odol zainak sortutako estutasuna baino gehiago. Hura joan izanak asko eragin zuen hark normalean soinean zeraman ezpain petaloen zimurrean, hura lautada bihurtu eta kopeta lainotu baitzitzaien. Zeharo sumatu dugu faltan irrifar alai hori familian, baita lumatu gabeko txorikumea zeneko, hots, gaztetasunaren hormonen dantzaldiko anekdotak ere; hegaldiak, melodiak.

Hura bai gizon puska, argi daukat inoiz ez dudala topatuko horren pertsona onik, ezta ausartik ere; ahoan legarrik gabe mintzatzen denik, zeruko txalorik. Pixkanaka-pixkanaka horri guztiari aurre egitea lortu zuen denon laguntzarekin. Apurka-apurka ilargia laba gainean izatera iritsi zen, izarrak bere egin eta gauaren goritasunean kulunkatzen zen alai. Arian-arian bihotzeko hegoek kemenaren taupaden higidudari eusten jakin zuten. Pitinka-pitinka gure babesaren flotagailuari oratu zion. Eta orain amamaz harro gaude denok familian, egin eta

erdietsi zuen guztiaz. Eman eta irakatsi zigunaz. Hizki larriz idazteko emakumea da guretzat, ulu ozenez kantatzeko irrintzia.

Geure buruko pentsamenduekin denboraren hautsak lotzea ekiditen dugu normalean eta artean hondar aleei heltzea ahanzi egiten zaigu eta harekin egin ez ditugun gauzatzaz bihotz mintzen hasten gara. Amak sarritan esaten zidan aldi joana ez zela inoiz itzultzen. Gauero amona bisitatzera joan beharra genuela esan orduko nik bizkarra ematen nion, momentuan bost ardura zidalako, ideia horrek gogait garbi eginda uzten ninduelako. Orain, usu harengana joan ez nintzela oroitzean bihozmina eragiten dit, buruari hatz egin eta damuak xuxurlatzen dit belarrira; buruko hazkurak atsekabea harrotzen du, egin ez izanaren gosea sortu.

Denboraren atzaparretan erortzen garenean, gogamena lanbrotu egiten da eta inguruan daukaguna langarra bihurtzen da, gandua, lurruna. Atsotitzak ere ondo baino hobe daki: "Urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau". Eta daukagun hori amildegiaren ertzean zintzilik begiestean, galtzear sumatzean; inguruari begiratzeko betaurrekoak jarri eta intxaurraren zenbakia benetan zein den jakiten dugunean; bertakoa balioesteari ekiten diogu. Eta artean, errudun sentitzen hasten gara, eta gauzak ondo egin ez izanaren duda-mudaren zurrunbiloan sartzen hasten gara. Zenbat aldiz errepikatu digute bai gauzak, bai ingurukoak ere momentuan gozatu behar ditugula, baina tamalez, une horretan ez gara jabetzen alboan daukagunaz, hortik denbora batera apika azken hatsa emango duela, edo geure bizitzatik aldenduko dela. Berandu, belutu egiten zaizkigu orduak eta bizitza iluntzerako argitzen zaigu gogamena. Hori da bizitzaren aroetako bat, jendea ezagutu eta aldentzen da sarritan, baina geratu behar direnak geratu egiten dira, eta joan behar direnak joan. Horrenbestez, geratzen direnekin bidaia, abestu, sentitu, amestu, bizi eta batez ere, maitatu. Konexioaren hariak harremanetan, korapilo irmo eta estua sortzen dute; konexioa maitasunaren zilbor-hestea da.

Familiako kide bat joaten denean, egunak zalditik astora joaten zaizkigu; denok sentitzen dugu haren falta, eta normala da tarteka-marteka burumakur egotea, ohikoa da aro horietan errealitatea txuri-beltzean ikustea. Haatik, hark gu nola ikusi nahiko gintuen pentsatzeak hartatik ateratzeko indarra ematen digu; aldi horretan, zain dobleko bilakatzen gara. Batzuei gehiago kostatzen zaie, besteei aldiz, gutxiago; alabaina, denoi geratzen zaigu bihotzean min puntu bat, sufrimenduaren eztenkada bat, karkararen melodia eztiren bat, irrifarrearen atximurren zimurren bat, harengan pentsatzen dugunean zentzumenak itzulipurdika jarri eta poza edo tristura sentitzen dugu. Oroimena irrifar bat ematen digun gozokia da, batzuetan pikantea, bestetan osteria ezia; oraina irrifar bat ematen digun intxaurra da, urrutikoa biltzera joan beharrean, bertakoa hartu, zaindu eta gozatzera eramaten gaituena; batzuetan lehorra, bestetan osteria bizia; hurkoenak onartzea eta maitatzea, hori baita bizitza.